



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Euskal kultur erakundea

Lota Jauregia - PK 6
64480 Uztaritze (Lapurdi)
Tel. 00 33 5 59 93 25 25
www.eke.org



euskalmunduak.com

mondesbasques.com

mundosvascos.com

basqueworlds.com

monsbascos.cat

Partaideak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Gipuzkoako Diputazioko Kultura Zuzendaritza
Koldo Mitxelena kulturunea

Prensa-txostena

2010eko uztailaren 7a

Prensa-harremana: Jakes Larre - Tel. 00 33 5 59 93 25 25

jakes.larre@eke.org

EUSKAL MUNDUAK SAREAN



Estreinatu denetik 2007an Euskal kultur erakundearen «Batekmila - Euskal munduak» erakusketa jadanik 14 tokitan erakutsia izan da. Euskal Herrian (Baionan, Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean besteak beste), Frantziako Bordelen, Albin eta Ambarrès & Lagraven baita Katalunian, Bartzelonan. Parisen ere egonen da, XVII. arrondizamenduko Herriko Etxean hain zuzen, 2010eko uztailaren 16tik agorrilaren 20era. Ondoko hilabeteetan ere, nahi izanez gero, EKE-k erakusketa hori ezar dezake areto egokietan.

Herri guzietan Batekmila erakusketak arrakasta gaitza bildu du, gazteenengan batez ere, bere alde elkarreragile eta ludikoari esker.

Hemendik goiti ikusi ahal ez dutenek parada ezin hobe ukanen dute honen gozatzeko interneti esker. Izan ere erakusketaren entzun-ikusak (bideoak, soinuak, argazkiak...) bost hizkuntzatako (euskaraz, frantsesez, gaztelerez, ingelesez, eta katalunieraz) webgune berezi batean sareratuak daude dagoeneko. Horrela «Batekmila» ikusia dutenek ere gustoko edukiak nahi bezainbat begiratzin ahalko dituzte etxetik.

Aplikazio hori www.euskalmunduak.com atarian aterpetua da eta euskal munduen biztanleen parte hartzea bultzatu nahi duen www.guremunduak.com webgunea bereziaz osatua. Iruñeko «Elea» enpresako teknikariak eta Euskal kultur erakundeako komunikazio saileko langileak aritu dira elkarrekin lanean dohain den sareko zerbitzu horren eskaintzeko publikoari.

Nabarmentzekoa da Euskal kultur erakundeak egitasmo hori Gipuzkoako Diputazioko Kultura Zuzendaritzaren eta Koldo Mitxelena kulturunearen laguntzarekin eraman duela aitzina.



ATARI BAT, BI WEBGUNE BEREZI



www.euskalmunduak.com
Euskal munduetan murgiltzeko sargia

Atari honek «Batekmila» web-erakusketara eta guremunduak.com aplikazio berezira joateko bideak agerian emateaz gain, euskal kulturaren munduan gaindiko albiste hautatu batzu plazaratzen ditu. Bertan Euskal Herritik kanpoko Iparraldeko artisten birak edo erakusketak aipatzen dira bereziki.



Batekmila erakusketa sarean
Helbide zuzena: www.batekmila.net

«Batekmila - Euskal munduak» erakusketa ibiltariaren entzun-ikusak biltzen dira, bost hizkuntzako (euskara, frantsesa, gaztelera, inglesa eta kataluniera) aplikazio batean. Nabarmentzeko edukien artean: Hasier Etxeberriak zuzendu «11 zubi» bideoa, Chillidari eta Oteizari buruzko dokumentalak, gazte-sorkuntzak («Burp», BAB arte eskolako ikasleak...), Rio Platense I eta II (Uruguai/Argentina) dokumentalak ... Ahantzi gabe munduan gaindi bildu bideo-lekukotasun ezberdin anitz...



Norberaren euskal munduak...
Helbide zuzena: www.guremunduak.com

Bost hizkuntzako aplikazio honek «Batekmila» sareko erakusketa osatzen du norberari parada utziz, argazkiz eta testuz, bere euskal munduen berri emateko. «Euskal munduen» kontzeptuaren interpretazio grafiko mota ezberdinei idekia da gunea. Edozoinak parte har lezake, izena emanaz gero, argazkiak igorri. Argazkiak komenta daitezke, preziatuenen alde bozkatzuz adibidez. Lagunei igor daitezke ere bai. Gainera argazki-bilduma bakoitza geolokalizatua da.





www.euskalmunduak.com
Euskal munduetan murgiltzeko sargia

«Euskal kultura munduan» albistegia:
Iparraldeko artisten biren berri, kultur
mailako Euskal Herritik kanpoko zombait
gertakari hautatuak...



euskal munduak

Euskal uharterdia

Hasiera

Berriak

Gure euskal munduak


Batekmila erakusketa sarean

Kontaktua

Euskara Français Español English



Euskal kultura munduan



Euskal munduak Parisen

Pariseko Eskual Etxea elkartarekin eta XVII. arrondizamenduko Herriko etxearekin partaidetzan, Euskal kultur erakundeak "Batekmila - Euskal munduak" multimedia erakusketa ibiltaria Frantziako hiriburuan aurkeztuko du 2010eko uztailaren 16tik agorrilaren 20ra.

[+] [Gehiago jakiteko](#)

Euskaldunen presentzia Argentinan argazkitan

Kepa Etchandy baiones argazkilariak 2003an Argentinan egin bidei baten oroitzapenak bildu zituen argazki-erakusketa batean. Orain interneten ikusgai di... [Gehiago jakiteko](#)



New-York-eko euskal emigranteen abentura Boise-n

Ipar-Ameriketako euskal emigranteetaz tratatzen duen erakusketa, Ellis Island ugartearen, Askatasun Estatuaren ondoan, egon eta, Boiseko Euskal Erakusto... [Gehiago jakiteko](#)



Portuetan ibiltzeko parada Innsbrucken

Mikel Dalbret margolariak bere argazkiak erakutsi ditu Innsbruck-eko Frantses Institutuan, 2010eko maiatzaren 4etik 28a bitartean.... [Gehiago jakiteko](#)



Batekmila erakusketa sarean!



BATEKMILA
web erakusketa

- 44 bideo
- 120 argazki
- 40 soinu



2. Modulua
Topaketa kulturalak



3. Modulua
Euskal uharterdia, nortasun bizkidia



4. Modulua
Bidean

Batekmila (2007-2010)

Ba zenekien?



"Batekmila - Euskal munduak" (2007-2010) erakusketa ibiltariaren aurkezpena argazkien, testoen eta bideoen bidez. [Gehiago jakin...](#)




"Batekmila - Euskal munduak" erakusketak UNESCOren labela ukan du 2008an, nazioarteko hizkuntzen urtearen karietara. [Gehiago jakin...](#)

Zoom

Euskal diaspora



"Euskaldunen Argentina" erakusketak Argentinara joan ziren euskaldunen atzerriratzeari buruz argibideak ekartzen ditu. [Gehiago jakin...](#)



Errepertorio bat proposatzen dizuegu interneten euskal diasporaz aurki ditzazkeen gune garrantzitsuenetaz. [Gehiago jakin...](#)

Gure euskal munduak



Erakuts Zure Euskal Munduak

Zure leihotik ikusten dituzun bazterrak, bidaiaz bizi izandako une bat... Igo zure euskal munduen argazkiak!





Batekmila erakusketaren sarea

Helbide zuzena: www.batekmila.net

Batekmila web-erakusketaren bost hizkuntzatan da. Kontsultaren hastapean aukeratu da hizkuntza. Ondotik nabigazio-hizkuntza alda daiteke edozoin momentuan «Batekmila» logotipoan klikatuz.

Ikusgai diren dokumentuak eduki motaren arabera sailkatu agertzen dira (bideoak, soinuak, testuak, argazkiak...).

Modulu bakoitzari buruzko azalpenak agertzen dira eskuineko zutabean. Behealdean, eskuineko izkinean, lotura batek www.euskalmunduak.com atariko orri berezi batera zuzentzen du bisitaria.



Edukiak erakusketaren lau moduluen arabera antolatuak dira.

Sagua irudi baten gainetik pasatzean, dokumentuaren izenburua edota laburpen bat agertzen zaio erabiltzaileari.

Gezi berdetan klikatu behar da modulu bakoitzeko eduki guztiak ikusteko.





Argazkiak kargatzeko gunean edozeinek izana eman lezake «Igo zure argazkiak» estekan klikatuz.

20 argazkiraino igo daitezke bilduma batean.

Bilduma bakoitza geolokalizatua da.



Gure euskal munduak

Euskara [Español](#) [English](#) [Français](#) [Català](#)

euskal munduak
Joan www.euskalmunduak.com atarira

[Euskal Munduak](#) > [Gure euskal munduak](#)

Login E-posta:

Pasahitza:

Gure euskal munduak




Erakutsi Zure Euskal Mundua

Zure leihotik ikusten dituzun bazterrak, bidaiatz bizi izandako une bat... Igo Zure Euskal Munduko argazkiak.


[Igo zure argazkiak](#)

Auñamendirako bidean

[Lescun](#) (Ikusi mapan)



Euskal Herriko Ipar ekialdeko mugan, iraileko goiz iguzkitsu batez...



Azken argazkiak



Baztango abereak ta hazienda

Baztango haizegoa (2010-06-26)



Nire euskal mundua - Mon monde basque intime

OGER Jean- Pierre (2010-06-13)



Euskal Herria vu par une Alsacienne

Louise Guillou (2010-06-11)



Nire euskal bestako mundu

OGER Jean- Pierre (2010-06-10)



Nire euskal itsasoako mundu

OGER Jean- Pierre (2010-06-09)



United States of America

Kattin Erramouspe (2010-06-08)

Egilea: [Jakes Larre](#) (6 argazki)

Lizentzia: Eskubide guztiak erreserbatutik

Balorazioa: (1 botuak)

[Igorri adiskide bati](#)

Iruzkinak

[Erantsi iruzkin bat](#)

1. Maite

Hoin urrun denetz, ez da bere majestatea hoinbeste agertzen. Gehiegi altua da enetatz eta nahiago diot Panpi mendia, arrain bat ahoa xabalik zerura buruz iduri baitu. Banintuzke nik ere Lescun aldeko argazki batzu zuri erakustekoak...

2. Xanbo

Egia erran Auñamendi ez dago Euskal Herrian kokatua bainan betidanik toki handia ukan du euskal herritarren gogo-bihotzetan...

Azkenik kargatu diren bildumak agertzen dira ezkerreko zutabearen.

Argazki bakoitzari iruzkin bat eranstean ahal zaio. Argazkiak baloratzen eta partikatzen ahal dira ere bai.



Euskal munduetan murgiltzeko sargia

Hizkuntzak: EU | FR | ES | EN

www.euskalmunduak.com

www.mondesbasques.com

www.mundosvascos.com

www.basqueworlds.com

Batekmila erakusketaren edukiak sarean

Hizkuntzak: EU | FR | ES | EN | CAT

www.batekmila.net

Norberaren euskal munduen erakusleioa

Hizkuntzak: EU | FR | ES | EN | CAT

www.guremunduak.com

«Euskal munduak»

Facebook sare sozialean segitu ere...

